


**Artium Museoa**  
Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa  
Vitoria-Gasteiz • Araba  
[www.artium.eus](http://www.artium.eus)

## **Néstor Sanmiguel Diest** **La peripecia del autómeta**



*En la penumbra de tu corazón.* Néstor Sanmiguel Diest, 1994  
Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoa Bilduma

A3 aretoan, 2022ko ekainaren 24tik azaroaren 1era

*La peripecia del autómeta* aldi bereko bi erakusketatan banatzen den komisariotza-proiektua da: bata Madrilen, Reina Sofia Museoaren Velázquez Jauregiaren egoitzan, eta bestea Gasteizen, Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoan, Artium Museoan.

Argibide gehiago: [www.artium.eus](http://www.artium.eus)

## ARTIUM MUSEOAK NÉSTOR SANMIGUEL DIESTEN *LA PERIPECIA DEL AUTÓMATA* ERAKUSKETA AURKEZTU DU

Erakusketak aukera ematen du 80ko hamarkadatik gaur egunera arte artistaren ekoizpena hainbat alditako lan sorten bidez aztertzeko

Madrilgo Reina Sofía Museoan eta Artium Museoan aldi berean egingo den komisariotza-proiektu bakar baten parte da

Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoak, Artium Museoak, *Néstor Sanmiguel Diest. La peripecia del autómeta* erakusketa aurkeztu du (A3 aretoa, 2022ko azaroaren 1era arte). Erakusketak 80 artelan inguru aurkeztu ditu, bere «lan-koadernoetako» marrazki-sorta zabalaz gain. Koaderno horiek artistaren ekoizpena aztertzeko aukera ematen dute, 80ko hamarkadaren amaieratik gaur egunera arte. Bi erakusketak osatutako komisariotza-proiektu bakar baten parte da erakusketa hau: Artium Museoarenak eta joan den ekainaren 2an Madrilgo Museo Nacional Centro de Arte Reina Sofíaren Velázquez Jauregian aurkeztu zenak. Erakusketa hau dela eta, bi museoak argitalpen bat prestatzen ari dira. Hiru testu izango ditu: proiektuaren komisario Beatriz Herráezena, Peio Aguirre komisario independentearena eta Nestor Sanmiguel Diest-en eta Ángel Calvo Ulloaren arteko elkarrizketa.

*La peripecia del autómeta* Néstor Sanmiguel Diesten (Zaragoza, 1949) ibilbideko hainbat alditan gauzatutako lan sortak erakusten ditu, eta bere burua «lantegiko artista» gisa definitzen duen egile baten praktikan murgiltzeko aukera ematen duen ibilbide bat marrazten du. Erakusketak bilduma pribatuetako lanak, egilearen jabetzakoak eta Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoaren Bildumako lau margolan biltzen ditu (*En la penumbra de tu corazón*, 1994; *Los sentimientos no expresados del lehendakari*, 2004, *El arte de esquivar*, 2004, eta *La hija del capitán*, 2004).

Bere jardueraren lehen urteetatik, hainbat talde artistikoren sorrerarekin lotuta —hala nola A Ua Crag eta Segundo partido de la montaña—, Sanmiguel Diest ekoizle metodiko eta emankorra izan da, etengabe sistemak, arauak eta protokoloak asmatu eta bere piezen eraikuntzan aplikatu dituen. Haren lan eskergak —marrazkiak eta pinturak, batez ere— katalogo berezi bat osatzen du, non irudiaren eta testuaren arteko mugak nahasten diren, palimpsesto batean bezala, aldi berean ikuslea interpelatzen duten kontakizunen segida bat azaleratzen eta ezkututzen duena.

Erakusketaren kronologia laurogeiko hamarkadaren amaieran hasten da. Garai hartan, artistak bi lan zituen: bere estudioan eta ehungintzako lantegi bateko patronista gisa. 2000. urtera arte ez zuen zeregin hori erabat utzi. Lanbide horretan aritzearen ondorioz, logika zehatza aplikatzen du lan-prozesuetan, eta fabrikako espazioari eta ikonografia militanteari buruzko keinu eta erreferentzia iraunkorrak egiten ditu. Industrian bezala, Sanmiguel Diest-ek egunean zortzi orduko (gutxienez) lanaldia egiten du bere estudioan ekoizpen sistematizatu bat gauzatzeko. Artistaren lantegira transferitutako muntaia-katea. Bertan, ohikoa da trokelak, patroiak eta matrizeak erabiltzea bere piezen barruan, *collage* gisa, *frottage* eta kopiaren bidez.

Hainbatetan, Sanmiguel Diest-ek «izkin egiteko ofizio» gisa aipatu izan du bere praktika. Premisa hori periferian kokatzeko moduan gauzatzen da, ez bakarrik geografikoan, baita diskurtsiboan eta materialean ere. Narratiba eta eztabaida zabalduenetatik aldentze horrek taktika eta metodo gisa

funtzionatu du, gaur egungo ekoizpen-moduak eta haien denboraren antolaketa zalantzan jartzen eta desafiatzen dituen pentsamendua eta lan-corpora sortuz.

Konbentzio orotatik urrun, haren lana artearen, literaturaren eta musikaren historiaren eremuei buruzko erreferentziak ohikoak diren eremu batean kokatzen da, baina baita egunerokoenari eta arruntenari buruzkoak ere, bere piezetan dokumentuak, fakturak, testu-zatiak, oharra edo prentsa-orriak txertatzen baititu. Sinboloen oihan batean paseatzeko gonbita da, isiltasun adierazkorrez jositako leku batean, ertzetan pilatzen den eta sarritan oharkabean igarotzen den horrekiko etengabeko negoziaketan. Ekoizpen horrek ez du munduaren hitzez hitzeko interpretazioan parte hartzen, eta bereganatze eta aipuen aldiberekotasunean oinarritzen da, bere trinkotasunagatik harritzen duen mekanismo potentzialki infinitu eta zirkular gisa.

### **Néstor Sanmiguel Diest**

Artista Aranda de Duero bizi da, eta han lan egiten du. 1985ean, Rufo Criado, Rafael Lamata eta Jesús Max artistekin batera, A Ua Crag taldea sortu zuen; Red District edo II Partido de la Montaña taldeen sorreran ere parte hartu zuen. 1990eko hamarkadan bakarkako ibilbide bizia hasi zuen, hasiera batean, hamarkada horren amaierara arte, ehungintza lantegi batean patronista gisa egindako lanarekin uztartu zuena. Bere ekoizpena ikusizko eta narratibozko bilbe konplexuen garapen zorrotzean oinarritzen da, trazadura geometriko zehatzetatik eta oihalen eta paperaren gainazalen gainean sistematikoki errepikatzen diren moduluen konbinazioetatik egindako ironiarik gabeko lanak.

Haren lana MACBAn, MNCARSen, MUSACen eta Artium Museoaren bildumetan dago, besteak beste, baita funts instituzional eta pribatu askotan ere. Bakarkako erakusketak egin ditu hainbat espaziotan, hala nola Reina Sofía Museoan, Leongo MUSACen, Montehermoso Kulturunean, Madrilgo Maisterravalbuena galerian eta Gasteizko Trayecto Galerian.

### **Artium Museoan ikusgai**

*Néstor Sanmiguel Diest. La peripecia del autómeta.* 2022ko azaroaren 1era arte

*Anna Daučíková. Not Belonging to and in Solidarity with.* 2022ko irailaren 18ra arte

*Erlea Maneros Zabala. The Voice of the Valley.* 2022ko irailaren 18ra arte

*Ephraim Asili. Fluid Frontiers.* 2022ko uztailaren 17ra arte

*Zeru bat, hamaika bide. Praktika artistikoak Euskal Herrian 1977-2002 aldian.* Euskal Herriko Arte Garaikidearen Museoaren Bilduma